

TOKIKOM

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria
2013ko azaroaren 29a
345. zenbakia. 24. urtea



Salatxotik 20 urtez kantari

Aurten bete ditu Salatxo abesbatzak 20 urte. Santa Zezilia Egunaren aitzakian egin zuten kontzertu berezia eta koruaren hainbat kontu jaso ditugu.

05

Karkara
Aldaketa dator

09

Kirol elkarrizketa
Alberto Rebollo

11

Aiako berri
Ordenantza fiskalak

21

Inketa
Txapelketa Nagusia

tailer mekanikoa

AUTO-LAN C. B.

urrutira joan gabe talde berria zure zerbitzura



Pelotari kalea, 5 ORIO 943 83 00 34

2GURPIL



Baxoalde 2 - 3 - 20810 Orio (Gipuzkoa)

943 835 980 www.2gurpil.com bigurpil@hotmail.com

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnor: 943 83 59 00

obrak proiektuak erreformak errehabilitazioak txostenak lizentziak

XS arkitektura

borja agirresarobe lopetegi 635 73 17 22

TANATORIO ZARAUZ

EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- Donostia eta probintziako ospitaleetan
- Aldi-roko zerbitzua
- Belatorio gelak
- Koroak, eskelak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarauz

Tel: 943 89 49 37 / Fax: 943 89 49 41
e-mail: harrespil@harrespil.net

Katu MORIA

ESTROPALARI, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99

LARRIAGAIK
608 67 64 95

KAXAIO
PLADURRA ETA IGELTSUA

Konponketa eta berrikuntza lanak pladurra eta igeltsuarekin

4josemaria@gmail.com

656 777 574

943 572 870

KOASTA

Wifi zerbitzua

Kopak, gau giro aparta...

Armeni Oain 1 - 6. lekua - 20.804 Aia
Tel. 943 84 82 13

kix estetika

kax ileapaindegia

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak - beira bikoitza
- segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak - barandak - kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

KOLON TXIKI

Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

ARKAITZ
Taberna

Pintxoak, plater konbinatuak eta ogitarleko mundialak

ABESLARI KALEA, 4 TEL: 943 83 16 57

LEUNDA OKINGEDIA

ORDUTEGIA

OSTEINGOTIA - LARNAITENA 7:00 - 20:30
BARRIO DE JESUS MARTIN 7:00 - 13:30

Tel: 943 83 00 47

azkue
karrozeria

Ubegun industrialdea, 7 20809 Aia-Orio
Tl/fax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com

Dorronsoro Denda

1963tik zure ondoan

BETIKO DENDA

Tel 943 83 09 37

Kilometroak 2014

1

Tolosatik pasa ta
ibaian behera,
zerbait etorri omen
Ori aldara,
hurbildu geranian
moila bazterrera...
Aiba, Kilometroak
badatoz gurera!

2

Kilometroek duten
ospe ta indarra,
ondo aprobetxatzeko
daukagu beharra.
Lana egin gogotik,
ez galdu irriparra,
goian utzi behar deu
gainditzeko marra.

3

Zer geran jakiteko
pentsatu aurrena
nola zen daukaguna
aiton-amonena,
nola izaten ari dan
orain gure haurrena,
alperrikan ez gera
herri eoskorrena.

4

Euskara bihotzian
untzian saltoka,
barrenen daukagula
odola bor-borka,
abiatzera goaz
ERRIA TXIKOTA!
geldituko gaitunik
ez da izango ta.

345

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea
Eusko Gudari, 26
20810 Orio
943 83 15 27
karkara@karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Zuzendaria

Lore Berasaluze

Erredakzio taldea

Irati Agirrezaldegi,
Onintza Aiestaran, Iker
Gurrutxaga, Eli Lasa eta
Idurre Lizarralde

Publizitatea

Iban egiguren

Publizitatearen diseinua

Iban egiguren

Testuen zuzenketa

Elizabete Manterola eta
Rikardo Uzkudun

Ale honetako

laguntzaileak

Alntton Mari
Aldekoa-Otalora,
Mireia Atorrsagasti,
Ibon Gaztañazpi,
Mikel Iruretagoiena,
eta Ione Zinkunegi

Laguntzaileak

Zigor Esoain
eta Iñaki Iturain

Diseinua

Karkara taldea


Banatzaileak

Narrea Etxeberria
eta Esti Uranga (Orioko)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Orioko)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain
hartzen aldizkarian
adierazitako esanen edota
iritzien erantzukizunik.
KARKARAN argitaratutakoa
berreman daiteke, osorik edo
zatika, baldin eta iturria
aipatzen bada.



KARKARA

PUBLIZITATE PREZIOAK

Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko:

**Iban Egiguren -688 859 682-
edo karkara@karkara.com**
Prezio hauei BEZA gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Erabateko euskara zaleari

Elizkizunetako partaide naizenez, KARKARAko *Nire honetan* pasarteko iritzia irerantzun nahi nioke.

Komeni zaigunean tradizioari jarraitzen diogu eta ez zaigunean gure oniritziari.

Zuk esandako hitzei bakarrik erantzungo diet: Santu Guztien Egunean meza entzutera joan daiteke, baina gure hildakoei bisita egitea nahiko zaila da, nik neureak ez baititut ikusten. Bisitak bizirik gaudenean egin behar dira.

Meza emaileak esandakoari kasu gutxi egitea edo batere ez? Hobe ohiturari eustea zure esatez.

Latinez kantatzeak belarriko mina egin zizula? Nik dakidanez elizako ateak elizkizun garaian irekita egoten dira, bai sartzeko eta bai irteteko.

Ni neu inoiz joan izan naiz hainbat abesbatza entzutera eta errusieraz abesten ere entzun izan ditut eta ez didate sekula belarriko minik egin, nahiz eta piperrik ere ez ulertu. Ziur nago hori gertatu baino lehen aretotik irtengo nintzatekeela.

Gustatuko litzaidake jakitea, ea belarriko min hori latinagatik ote den, elizako hizkera izan delako beti, edo beste hizkuntza batean abesteagatik izan den.

Zuk diozun bezala *gaizki esanak barkatu eta ondo esanak gogoan hartu*.

■ **Josune Elortza.**

Aiarrak

KARKARA aldizkariaren 343. zenbakiak *Danbolineko ikasle aiarrek matrikula osoa ordainduko dute 2014tik aurrera* albistean ondokoa dio: *Igor Iturain Aiako alkatearen hitzetan, Danbolin Musika Eskolan dabilzan Aiako ikasleek, lauk izan ezik, beren eguneroko bizitza Orion egiten dute: ikasketak, erosketak... guztia. Beste lau horiek dira benetan Aiako kaskoarekin lotura dutenak. Horren aurrean, momentuz Orioko musika eskolan dabilzan aiarrengatik ez dugu ordainduko. Izan ere zerbitzu hori bera Aian badaukagu, nahiz eta xumeagoa izan, gaineratu du Aiako alkateak.*

Ni ez naiz erabaki honen ondorioz kalteua izan direnetako bat, baina salagarria iruditzen zait Aiako alkateak Aian bizi garenok mailatan banatzea, Santio auzoan bizi den aiar bat naizen aldetik. Nire zergak Aiako udalari ordaintzen dizkiot, eta honek jasotzen dituen diru laguntzak udalean erroldatuta gauden biztanle kopuruaren arabera dira. Aia zabala da eta auzo asko ditu, bakoitza bere ezaugarri eta gabeziekin. Uste dut,

herri gunetik aparte bizi garenok gabezia hauek non bete erabakitzeke Aiako Udalaren betebeharra erraztasunak jar-tzea dela, eta ez oztopoak. Bizitza non egin aukeratzekoan, erosotasunari begiratzen diogu, ez da kapritxo hutsa.

■ **Santion bizi den aiarra.**

Musika eskolako adiskide oriotarrok!

Aia eta Orioko politikarien adostasun ezak musika eskola honetako ikasleen %10a datorren urtean lekurik gabe utziko du. 12.000€; horixe da, hain zuzen ere, gure ordainetan bi udalek beren gain hartu beharreko kopurua –nahi du ten moduan banatua– eta mahai gainean ipini nahi ez dutena, familiei kostua ia hirukoiztu araziz, seme-alaba bakoitze-ko. Kantitate hori ordaindu beharrak musika eskola familiengandik urrundu egiten du, luxuzko ekintza eskuragaitza bilakatuz.

Gure seme-alaba aiarrek, eta guk, familia bezala, bizitza Orion egiten dugu. Seme-alabek Orion hartzen dituzte eskolak, Orioko parkeetan aritzen dira jolasean, Orioko kiroldegia eta Kultur Etxea erabiltzen dituzte. Orion egiten ditugu erosketak eta herri honi estuki lotuta gaude. Gure seme-alaben adiskideak oriotarrak dira.

Ez dakigu zergatik, beste hainbat esparrutan, kiroldegian esaterako, bi Udal hauek dituzten akordioak, ez dituzten musika eskolara ere luzatzen. Arazo honek musika eskolako irakasle kopurua murriztuko du, ikasleen ia 10% osatzen dugula gogoratu, eta aurrerantzean Orioko Udalari berari eta musika eskolaren musika maila bikainari eragingo dio.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu, adiskideok, arazoa ezagun duzuenok emandako babesagatik. Bi herrietako politikariei eskatu nahi diegu, zentzu onez jakatu eta eurek bakarrik sortutako arazo honi irtenbide egokia emateko.

Aurrera Orioko Musika Eskola.

■ **Danbolin Musika Eskolako ikasle aiarren gurasoak.**

Baserritarren bilera deialdia

Aiako eta Orioko baserritarrei jakinarazi nahi dizuegu, Orion, inguruko baserritarren azoka dinamika egokia martxan jarri nahi dugula, baserritarrentzat jasagarria izango dena. Bileraren helburua baserritarren beharrei entzutea eta horiei ahalik eta irtenbide egoki-ena ematen saiatzea izango da. Baita azoken

gaineako hausnarketa egitea ere. Bilera datorren asteazkenean, abenduaren 4an, izango da Orioko Kultur Etxean 17:30ean. Ongi izan! ■ **Orioko Nekazarien Batzarra eta Urkome-Urola Kostako Landa Garapeneko Elkarteak.**

Orioko I. Mus Txapelketako finala

Iritsi gara ttirriki-ttarraka azken hilabetera eta hainbat mus txapelketen ostean hauek dira San Nikolasetako finalerako txartela lortu duten bikoteak:

Bittor-Jokin
Illarra-Iboni
Txanka-Ibai
Lurdes-Jon
Oto-Antton
Martikorena aita-sembleak
Amañu-Iñaki
Ibai-Aldakur
Txapo-Egoitz
Ibai-Oskar
Etxabe-Imanol
Iñaki-Tito
Anibarko Portuko bigarrenak
Txapo-Erkixia
Paorra-Atorra
Ibarbia-Asier

Finalean parte hartzeko ezinbestekoa da bikote bakoitzaren parte-hartzea ziurtatzea. Horretarako, abenduaren 2a baino lehen adierazi behar duzue parte hartzeko asmoa Lore Burdindegian edo 688 617 016 telefono zenbakira deituta.

Finala abenduaren 7an, larunbatetik, izango da 16:00etan Herriko plazan, *Izan zaitez tantak* antolatuta.

Jakinarazi nahi dugu sailkatu diren bikoteekin bilera egingo dugula abenduaren 2an, 19:00etan, Orioko Kultur Etxean. Oso komenigarria da azaltzea!

■ **Izan zaitez tanta!**

Okerrak zuzentzen

KARKARAREN 343. zenbakian, egin dako akats bat zuzentzeko da oharra. Martiportu baserriari buruzko idatzian baserriaren jabea Rosario Atorrasagasti dela esan genuen eta jakinarazi digute baserria Atorrasasti eta Ostolazatarrena dela, eta jabetzan Rosario Atorrasagastik beste anai-arreben ehuneko bera daukala Ines Ostolazak izan ezik. Azken honek bizitza osoan baserrian lan egin ondoren, bere anai-arreben erdia du. Besterik gabe, mila esker informazio zuzena eman digunari eta barkatu okerrak.



2012ko ekainean eman zion erreleboa aurreko taldeak oraingoari. KARKARA

Hamaboskaritik hilabetekari izatera pasako da KARKARA urtarrilean

Informazioaren munduak jasan duen aldaketaren aurrean berritzeko bidea hartu du KARKARAK. Aldizkariko informazioa hobetzea eta webgunea indartzea dira KARKARAREN erronka berriak

Atzera goaz aurrera ez bagoaz dio esaldi batek eta hori da KARKARAK hartu duen bidea: aurrera egitearena. Duela 14 urte hilabetekari izatetik hamaboskari izatera pasa zen gure aldizkaria, baina gaur egun bizi dugun informazioaren aro berriak beste itzuli bat ematera behartu gaitu.

Hilabetekari izateak ez du esan nahi informazio gutxiago jasoko duenik herritarrak. Ez eta produktu gutxiago jasoko duenik. Papereko produktua irauli eta patxadaz, informazio eta eduki landuagoekin eskainiko dugu urtarriletik aurrera.

Hala, webgunean ere indar gehiago izango dugu. Egungo eskakizunetara egokitzeko gogoz dago KARKARA. Eduki multimediak ditu gustuko etxean dagoenak, ez albiste soilak. Horiek guztiak txukun bilduko dituen webgune berri bat ere martxan jarriko dugu datozen hilabeteetan papereko produktu berriuz gainera.

Horretarako lanean ari gara gaur egun KARKARA taldean. Sare bat osatu nahi dugu, herritarrok guregana gerturatzea nahi dugu. Idaztera, eduki multimediak zabaltzera... nahi dugu animatu Aiako eta Orioko komunitatea. Guztiek izan dezatela beren tokia KARKARAN.

25 urteko ibilbidea

Urte askotako ibilbidean beste aldaketa bat gehiago baino ez da izango datorrena. Aurreneko urtean bizenbaki baino ez ziren kaleratu, gero hiruhilabetekari izatera pasa zen eta 1992an hasi zen hilabetekari gisan funtzionatzen KARKARA.

Orain, ordea, berehalakotasunaren aroan bizi gara eta informazioa toki guztietatik iristen da. Horrek ere aldaketak ekarri ditu gurean eta iritzi eta bestelako kolaborazioak leku zabalagoa hartzen joan dira KARKARAN. Orain are eta gehiago zabaldu nahi dugu ate hori. Datorren sanpedrotan beteko ditu 25 urte KARKARAK eta zerbait polita egin nahi dugu.



Itxura berria izango du KARKARAK. KARKARA



Taldeko aurpegiak aldatuz joan dira. KARKARA



Jende asko izan zen UEUK antolatutako Natur Zeientzien topaketetan. UEU

Arturo Elosegiren lana Donostiako Natur Zientzien topaketetan

Azaroaren 9an eta 10ean izan ziren jardunaldietan Elosegiren ikerlari taldeak ibai arroen baitan eman daitezkeen mehatxuei buruzko lana plazaratu zuen

Natur Zientzien I. Topaketa antolatu zuen Udako Euskal Unibertsitateak Euskal Herrian naturaren inguruan lanean dihardutenek elkar ezagutu eta elkarlan-sare baten oinarriak ezarri asmoz azaroaren 9an eta 10ean. *Ibaien funtzionamendutik proiektu ezberdinetara: EHUko ibai ekologia taldearen aurkezpena* izenburupean ibai arroen baitan eman daitezkeen mehatxuak aztertzen ateratako zenbait ondorio plazaratu zituen Alberto Elosegiren taldeak. Hiru proiekturen emaitzak jasotzen ditu, hain zuzen, posterrak:

Complexstream: ordena txikiko ibaiertzeta bazoetan eta ibaietan urtetan egin den kudeaketa dela-eta, ibaiak konplexutasun estrukturala galdu egin dute. Egur hila gehituta konplexutasun estrukturala berreskuratu eta bertako bizidunen gehikuntza bat eta hainbat prozesuren funtzionamendu egokiago bat lortu dituzte.

Scarce: ibai mediterraneanarretan, al-

daketa globalaren aurrean gehien mehatxaturiko ekosistemetan, aldaketa handiak espero dira euren funtzionamenduan. Ibai ekosistemetak prozesuak ikertuz ibai horietako inpakturik garrantzitsuenen ondorioak identifikatzen dituzte.

Abstract: zentral hidroelektrikoak zein oinarritzko ur-horniketarako tarteko, ibaietatik gero eta ur gehiago ateratzen du gizakiak. Emaria murrizteak ekosistema horien habitat fisikoan, komunitate biologikoetan zein funtzionamenduan izan ditzakeen ondorioak aztertu dituzte.

150 inguru lagun bildu ziren topaketetan. Gaurkotasun handia duten lau gai ikuspegi oso desberdinetatik jorratu zituzten. 18 hitzaldiz, 44 posterrez eta zientziaren munduan euskarak duen tokiaren inguruan eztabaidatzeko mahai-inguruaz gozatzeko aukera izan zuten han izan zirenek. Esperientziak zein iriztiak banatzeko ere aukera paregabea.

LABUR

Lanak

Bentarako errepidea itxita

Azaroaren 14tik itxita dago Orio eta Donostia kostatik lotzen dituen errepidea. Izan ere, Bentara bidean bi luizi egon ziren eta horietako batek kalte garrantzitsua eragin zuen errepidean. Orioko Udaleko hirigintza bulegoko teknikariek lehen azterketa eginda, errepidea ixtea gomendatu zuten eta orain Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariek elkarlanean ari dira errepidearen gaineko ikerketa egiten. Ikerketa-proiektu horren emaitza abenduko lehenengo asterako izan nahi dute eskuartean, lehiaketa publikora aurkeztu eta konponketa lanak lehenbailehen hasi daitezzen. Errepidea egoera onera ekarri bitartean, auzokoei baino ezin izango dute bertatik igaro. Lehendabiziko aurreikuspena egin eta gero, bidea hiru hilabete inguru izango da itxita.

Kultura

Maialen Sarasua Zinebin

Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian izan eta gero, Bilboko Zinebi festibalean izan da orain Maialen Sarasua zi azaroaren 21ean Golem-Alhóndiga aretoan, eman zuten *Donde nunca pasa nada* film laburra eta Nazioarteko Lehiaketaren barruan hartu zuen parte Sarasuaren pelikulak. Orain, Bilboko Zinebiren atzetik, abenduan, Bartzelonako Giza Eskubideen Zinemaldian ere izango da Maialen Sarasua.

Karkara

Udazkeneko kobratzea

Normalean urrian egiten badugu ere, aurten abendura arte atzeratu dugu KARKARAKO laguntzaileei egiten diegun udazkeneko kobratzea. Datorren urtera begira, aldaketak tarteko, lehen sehilabetekoan guztiei batera kobratzeko asmotan gara. Gauzak horrela, udazkenetik udaberrira pasako dugu sasoi honegan egiten dugun kobratzea.

Ingurumena

Herrikoak pozik

Aurreko azaroaren 17an urtero egiten duten hazi banaketaren hamargarren edizioa egin zuten Herri Natur Taldekoek. Eguraldi txarra izan zuten arren, pozik zeuden taldekoak jende asko gerturatu zelako. Hazi gehienak kanpotarrek eramanean omen zituzten, gainera. Hazi banaketaren atzetik betiko moduan bazkaria egin zuten eta *mundial* pasa zutelaren esan dute Herrikoek.

Oriotarren arrantza eta auzolana jai girora eramanez, *Erria txikota!*

Azaroaren 22an aurkeztu zuen Orioko Herri Ikastolak 2014an antolatuko duen Kilometroak festarako marka. Arrantzari eta auzolanari erreferentzia egiten dion Orioko esaera aukeratu dute horretarako

Martxoan jarri zuten martxan Kilometroak 2014 festarako leloa aukeratzeko prozesua. Horretarako, herritarrei beren ekarpenak egiteko aukera eman zuten antolatzaileek.

Zortzi hilabete pasa direnean, azaroaren 22an, aurkeztu zuten jendaurrean festaren marka izango diren leloa eta logoa. Leloa *Erria txikota* izango da, arrantzari eta auzolanari keinu egiten dion esamolde oriotarra.

Marka hori aurkezteko, arrantza giroan oinarritutako jaialdia antolatu zuen Orioko Herri Ikastolak kiroldegian. Dantzariak arrantzalez jantzita, baporea eta mutiloia eszenatokian parez pare, sa-reak...

Orduan jabetu ziren leloaren sortzaileak, Ibon Berasaluze eta Ekiñe Saizar, berek proposatutako leloa izan zitekeela aukeratutakoa. *Gure proposamenarekin bat zetorren Karela kiroldegiko dekorazioa eta aurkezlea hizketan hasi eta aurreneko txikota hitza entzunda lehertu zen gure barneko poza. Ilusio handia egin zigun diote biek*

Gipuzkoako ikastolen festa eta Oriolotuko zituen leloak herriarekin lotura izan behar zutela argi zeukaten biek: *Arrantza munduaren bueltakoa behar zuen izan gurean: sareak, josi, txikota... saltsa horretatik ateratako zerbait.* Elkarlanaren kutsua izango zuen leloa ere aurreikusten zuten Saizarrek eta Berasaluzek, Ikastolaren balioak gogoan.

Gemma Etxabe ikastolako lehendakariak adierazi zuenez *Orio eta oriotarren bizimodua itsasoari eta erriari lotuta egon da beti; arrantza, ontziolak, errioa eta arrauna. Kultura oso bat garatu da horien inguruan eta oriotarrek itsas ondare hori bizi-bizirik mantendu dute mendeetan zehar.*

Horrez gainera, oriotarren hizkerari garrantzia eman nahi izan diote antolatzaileek, *globalizatutako gizartea inguruarekin harremana galtzen ari den heinean hizkuntza ondarea ere pixkanaka galtzen ari baita. Bide hori jarraituz, gustatuko litzaiguke belaunaldi berriek oriotarren parte diren esamoldeak eta betiko ohitura eta balioak berreskuratzea, gaineratu du Etxabek. 2014ko urriaren 5ean, Erria txikota Orion.*



Logoa eta leloa atzean, baporea alboan eta mutiloia eta txikota aurrean izan zituen Etxabek. KARKARA



Jendez gainezka izan ziren kiroldegiko harmailak aurkezpen ekitaldian. KARKARA



Susana Martin izan zen oriotarretan emakume azkarrena Behobiatik Donostiarakoan. KARKARA

Aritz Lizarralde jubeniletan azkarrena Behobiatik Donostiara

23 aiarrek eta 68 oriotarrek bukatu zuten 20 kilometro pasatxo dituen lasterketa. Herritarren artean, Susana Martin hamargarren izan zen emakumezkoetan eta Aitor Rubio 63. gizona zkoetan

Urtero bezala, Aiako eta Orioko korrikari asko izan ziren azaroaren 10ean Behobia-Donostia lasterketan. Nabarmenezkoa da Aritz Lizarralde gaztearen marka. Ordubete, 17 minutu eta 55 segundoko denborarekin jubenil kategoriako lehen postua eskuratu zuen.

Dena dela, oriotarren artean Aitor Rubio izan da aurtengo edizioan ere bizkorrena: ordubete, 10 minutu eta 31 segundotan geratu du kronoa Rubiok. Bost minutu gehiago behar izan ditu aurreneko aiarrak, Iñigo Otegik, lasterketa amaitzeko.

Emakumezkoetan, berriz, Susana Martín ibili da azkarren: ordubete, 23 minutu eta 34 segundorekin, hamargarren egin du emakumezkoen sailkapen orokorrean. Ainhoa Imazen postua aurtengoan ere azpimarratzekoa da, emakumezko promesen artean hirugarren izan baita oriotarra. Aiako nesken artean, berriz, Ainhoa Ubegun izan da lehengoa, ordubete, 44 minutu eta 22 ehunenekin.

Iglesias seigarren

Ezinduen lasterketan ere izan zen oriotarren ordezkari, Jose Antonio Iglesiasek aurtengoan ere parte hartu baitu lasterketa entzutetsuan. Seigarren egin du proba 54 minutu eta 50 segundotan bukatuta.

Festagiroan

Festa egun handia izan ohi da Fortuna taldeak antolatutako proba hau gurean eta lasterkari asko erakartzen du urtero. Behobia-Donostiako web gune ofizialeko sailkapenaren arabera, 91 lagun joan dira hain zuzen ere aurtengoan Orio eta Aiatik: 23 aiar eta 68 oriotar, zehatz esate aldera. Hala ere, behin betiko sailkapena abenduan kaleratuko dutela adierazi dute antolatzaileek.

Azaroaren 24an Donostiako Maratoia izan zen jokoan. Sailkapen ofiziala ezin da herriz-herri iragazi, baina, besteak beste, Susana Martin emakume betaranoetan zazpigarrena izan zen 3 ordu, 8 minutu eta 49 segundoko markarekin.

LABUR

Dardoak

Bi domina Urnietatik Oriora

Hainbat Oriotar izan ziren azaroaren 14an jokatu zen Gipuzkoako Dardo Txapelketan parte hartzen, *cricket* modalitatean. Urnietako Oianume sagardotegiak hartu zuen bere gain probaren antolakuntza eta lurraldeko dardo-jaurtitzaille trebeenak izan ziren bertan nor baino nor. J. I. Larrañagak amateur mailan zilarrezko domina bereganatu zuen oso maila ona erakutsiaz eta haren hitzetan *eguna borobila izan zen, ez nuen horrelakorik espero. Azken asteetako entrenamendu saioek beren fruitua ematen dutela ikusteak aurrera jarraitzeko indarra ematen dit*. Bestalde, Joseba Unanuek master mailako titulua bigarren aldiz jarraian irabazi zuen eta duela gutxi zendu zen aitari eskaini zion garaipena malko artean.

Futbola

Aranburuk espediente onena

Orioko Futbol taldeko erregional mailako jokalaria bat, Jorge Aranburu zarautarra, saritu egin dute azaroaren 18an. Tecnun Ingeniaritza Eskolan Aranburu izan da 2013ko promozioiko ikasleen artean espediente onena eskuratu duena.

“Txakurrek nahikoa erresistentzia dute, gu gaude mugatuta”

Alberto Rebollo

Kanikrosseko lasterkaria

Orioko lehen kanikross solidarioa jokatu zen azaroaren 24an. Guztira 67 korrikalarik hartu zuten parte beren txakurrekin, tartean Orioko Alberto Rebollok eta Aiako Eñaut Solagurennek. Euriari eta zirkuitu gogorrari aurre egin behar izan zioten denek.

IRATIAGIRREAZALDEGI

Lehen aldia zuten Alberto Rebollok eta bere txakur Thorrek kanikross batean. Hain kirol ezaguna ez bada ere, herrian izanik probatzeko gogoia sentitu eta aurreko astean apenas prestatuta ausartu zen aldapan gora eta behera, txakurra lagun hartuta lasterketan parte hartzera.

Nola pentsatu zenuen horrelako lasterketa batean izena ematea?

Txakurraren gurasoek kanikrossa egiten dute, beraz, nik banuen noizbait probatzeko gogoia. Horretarako txakurra eta ni nola moldatzen ginen ikusi behar nuen eta Orion izanik animatu egin nintzen. Korrika egitera joaten banaiz nirekin eramaten dut txakurra, askotan askatuta eta nire ondoan, baina ez mendian, aldapa gogorretan eta arnesarekin lotuta.

Nola prestatu zarete txakurra eta biok?

Ez genuen prestaketa berezirik egin. Bidea ezagutzen nuen eta oso gogorra da, baina lasterketa aurreko astean hiru aldiz baino ez nintzen joan txakurrarekin.

Nork jartzen du erritmoa lasterketetan?

Txakurrak ezin du oso gogor tira egin nik ezin diodalako segi, baina era berean ezin du tira egin gabe nire ondoan joan. Hala ere, erritmoa nik jartzen dut. Bera azkarrago joango litzateke, ni aldapan gora eta ezinean baino bera moldatu behar da. Txakurrentzat jolasa da eta beste txakurrei segika joango litzateke, disfrutatzen; ni, berriz, gozatzen, baina sufritzen. Txakurrek erresistentzia gehiago daukate, gu gaude mugatuta.

Nolako txakurrak izaten dira?

Batzuk txakurrak aurrez oso ondo prestatzen dituzte, dieta eta entrenamendu bereziekin. Askok ehizako txakur finak erabiltzen dituzte, dirutza balio dutenak. Lasterketen aurretik txertoak hartu dituztela ziurtatzen dute bakteriak ez hartzeko eta txakur batek besteari ez ku-



KARKARA

tsatzeko. Jabe batzuei ez zaien gustatzen beste txakurrak beraienengana joatea kontzentrazioa galtzen dutelako.

Thor nire lehenengo txakurra da, ia 16 hilabete ditu eta elkar ezagutzen ari gara. Dobermana da. Badira batzuk txikiagoak, hanka motzagoak dituztenak eta indartsuagoak, baina honek hanka luzeagoak eta finagoak ditu, gihartsuagoak. Aproposa da korrika egiteko. Oporretan mendian, Alpeetan izan naiz berarekin eta ondo ibiltzen da, hotzarekin beroarekin baino hobe gainera.

Modu berezian zaintzen duzu txakurra?

Ez. Dagokion jatekoa ematen diot, ez gehiago ez gutxiago eta korrika egitera zein mendira joanez gero ondoan izaten dut. Ohituta dago mugitzera eta beste txakurrekin jolas egitera. Gainontzean dutxatu eta orraztu baino ez dut egiten.

“Erritmoa ni jartzen dut. Txakurra azkarrago joango litzateke, baina ni aldapan gora eta ezinean baino bera moldatu behar da.”

“Batzuk txakurrak aurrez oso ondo prestatzen dituzte, dieta eta entrenamendu bereziekin. Askok ehizako txakur finak erabiltzen dituzte.”

Nolako izan da Orioko kanikrossa?

Oso gogorra, baina era berean pozik amaitu nuen. Aldapan gora gogorra izan zen eta behera txakurrak bultza egiten zuen, beraz, kontuz ibili behar zen. Zirkuitua aldatu egin zuten eta aldapa gutxiago izan arren lokatz gehiago zegoen eta pare bat aldiz erori nintzen.

Beste kanikrossen batean hartuko al duzu parte?

Bai, probatuko dut besteren batean lanarekin eta arraun entrenamenduekin uztartuz. Ez, ordea, jendea joaten den bezala lasterketa guztietara, entrenamendu bereziak eginda, jatekoa zainduta... baizik eta biok gozatzerara.

Arraunean, denboraldi-aurrean, korrika egin behar dugunez ez zait gaizki etorriko, baina denboraldian aurrera joan ahala gure entrenamenduak gogoragoak dira eta udan ezin dugu gehiago ahuldu. Gainera, txakurrak 10 gradutik behera moldatzen dira ondoen eta hau beltza izatera beroak nekatu egiten du.



KARKARA

“Gure txerrien haragiak itxura eta zapore hobea du aske hazten direlako”

Iñigo Etxabe eta Leticia Isart

Txerri hazleak

Kalitatezko Euskadiko produktuak bereizteko Eusko Label markak beste jateko batzuk izango ditu hemendik aurrera: txerrikiak. Aiako Elkano auzoan, Aranburu baseritik gertu, hazten dituzte baserriko txerriak Iñigo Etxabe eta Leticia Isartek.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Lursail aldapatsua dute Leticia, Iñigo eta azken honen anaia Josebak. Negutegiak jartzeko ideia zuten, baina goi partea ordeka izan arren haizetsua ere bada. Beraz, beste aukera batzuk begira hasi, eta txerria horrelako lursailera egokitzen denez, horri heltzea erabaki zuten 2006an. Lan hori lorezain lanekin uztartuz hazten dituzte txerriak. Eusko Label ziurtagiria jaso dute berriki Txerrizaleok elkartearen egiten den lana aitortuz.

Zenbat txerri dauzkazue?

70 txerriko bi talde izaten ditugu urtean. Bost hilabetez egoten dira batzuk, tartean garbiketa eta desinfekzioa egin, hurrengo txandara bitartean hilabete utzi eta beste horrenbeste ekarri.

Eta nola hazten dituzue?

Aske daude txerriak barruan zein kanpoan, nahi duten bezala. Pentsua ere aukeran daukate eta baratzeko zein fruta dendako soberak ere ematen dizkiegu. Euri asko egiten badu itxi egiten da lursaila hesi elektrikoarekin basoa ez altxa-

tzeko. Lurra lehorragoa dagoenean basoan aske ibiltzen dira.

Guk jatena ez faltatzea, garbiketa eta osasuna kontrolatzen ditugu. Katarroa, herrena, hernia... izanez gero erizaintza gunera eramaten ditugu. Bestalde ekarri eta hiru astera txertoa ematen diegu.

“Guk jatena ez faltatzea, garbiketa eta osasuna kontrolatzen ditugu. Katarroa, herrena, hernia... izanez gero erizaintza gunera eramanez”

“Txerri haragi freskoak zaleak baditu, baina ez dago ohiturarik, esaterako, atzeko hankako xerrak jateko, eta ederrak dira”

Zertan bereizten dira beste txerriekin?

Txerri industrialia kaiolan hazten dute, gureak baino lehen hil eta zapore gutxiago dute. Gureak haragi kalitate hobea dute, zapore hobekoa, eta hazi ere askeago egiten direnez estres gutxiago dute.

Zein baldintza bete behar dira Eusko Label agiria lortzeko?

Kontrola egiten dute hemen jaio eta hazitako ganadua dela ziurtatzeko. Horrez gain, gutxieneko pisua, osaera, gantza, haragiaren kolorea... egiaztatzen dituzte. Horretarako, homologatuta egon behar dute ekoizleek, pentsu fabrikatzaileek, hiltegiek, zatikatze gelek, salmenta tokiek eta langileek.

Produktuak aurrez ezagutzen dituenak badaki jenero ona dela. Hala ere, kontsumitzaileek esaten dute haragia gantz gehiago edo gutxiagorekin nahi duten. Solomoa eta txuletak eskatzen dituzte gehien. Freskoak zaleak baditu, baina ez dago ohiturarik, esaterako, atzeko hankako xerrak jateko eta ederrak dira. Gaur egun, Eusko Label produktuak saltzen dituzten harategietan eros daiteke.

Aurreak eta atzeak, urdaiazpikoak ondu egiten dira, York urdaiazpikoa, txorizoa, saltxitxoa... ateratzeko. Eusko Label ziurtagiria dutenak freskoak bakarrik dira, gainontzekoak Eusko Label-dun txerriarekin egindakoak, eta horrek kalitatea ziurtatzen du.

Beste animaliarik hazten duzue?

Sasi-ardi batzuk lursailak mantentzeko eta etxerako arkumeren bat. Nekazaritza eta abeltzaintza arloaren egoera ez da hain ona eta txerriena guretzat laguntza modukoa da, ez gara horretatik bizi. Horretarako gutxienez sei talde jarri behar harko lirateke eta gukez dugu lekurik.



Zergak igotzea erabaki du Aiako Udalak. KARKARA

EAJren aldeko botoekin onartu dira 2014ko ordenantza fiskalak

Oro har, %1-1,5 bitarteko igoera aplikatuko zaie zerbitzu eta zergei, tasetan motaren arabera igoerak izango dira.

Azaroaren 13ko udalbatzarrean, 2014 urterako ordenantza fiskalen proposamenak desadostasunak sortu zituen Aiako Udaleko bi alderdien artean. Alde bozkatu zuen EAJk, kontra Bilduk eta, hortaz, gehiengo, onartuta geratu ziren ordenantza fiskalak.

Oro har, %1-1,5 bitarteko igoera aplikatuko zaie zerbitzu eta zergei. Atalez atal, derrigorrezko zergen artean, %1eko igoera izango dute Hiri eta Landa izaerako Ondasun Higiezin, Jarduera Ekonomikoen eta Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko zergek. Eraikuntza, instalazio eta obra zergen kasuan, ez da igoerarik aplikatuko.

Tasei dagokionez, lurzoru publikoaren erabilerarekin zerikusia duten horiek ez dute igoerarik izango. Zerbitzu publikoen erabileran, aldiz, zerbitzu motaren arabera igoerak izango dira.

Ura, saneamendu eta arazketari dagokion tasa %1,5 igoko da, Ur Kontsortzioko Batzarrak onartu bezala. Zabor bilketari dagokion tasak %5 egingo du gora. Lizentzia emateagatik ordaindu beharreko tasari bere horretan eutsiko zaio.

Gizarte zerbitzuen tasaren baitan etxez etxeko laguntzari, herriko obra eta brigadako langileek eta bideak garbitzeko makinaren erabileragatik emandako zerbitzuei, udal igerilekuari eta udal pilotalekuari dagozkienetan ere ez da aldaketarik izango. Bai aldiz, ospitaletxeko eta hileta zerbitzuetako tasetan eta udal probalekua-dema plazaren erabilerako tasetan; %1eko igoera izango dute azken horiek.

Igor Iturainek adierazi zuenez, zabor tasak zerbitzua ordaintzera jo behar du, eta aplikatuko den igoera zorraitatzeko adinakoa ez dela jakinarazi zuen.

LABUR

Justizia Bake epailea

Aiako bake epailea aurreko abuztuan aukeratu zuen Aiako Udalak. Epaileaz gainera, ordezkoa ere aukeratu zuten, Rita Portularrume. Baina, arrazoi batzuek tarteko, bere kargua uztea erabaki du Portularrumek eta, ondorioz, ordezkoa hartu beharrean daude aiarrak. Hori dela eta, Aiako Udalak deialdia luzatzen die herritar guztiei zuzenduta. Epailearen ordezkoa izateko 18 urte edo gehiago izan behar dira eta Aian erroldatuta egon behar da. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, Aiako Udal bulegoetara zuzendu beharko da abenduaren 5a baino lehen.

Kirola Soka tira

Azaroaren 23an jokatu zen Euskadiko goma gaineko sokatira txapelketa lau lauen kontrako modalitatean. Sokarri B taldea izan zen irabazle 6 tiraldi irabazita. Atzetik Napurrak A eta Ibarra A izan ziren podiuma osatzen, 5 eta 4 tiraldi irabazita hurrenez hurren.

Irteera Agorregiko errotara bisita

Datorren abenduaren 6rako irteera antolatu dute Iturrarandik Agorregira. Goizeko 11:00etan hasita hiru orduko txangoa egingo dute bisitariek, tartean ogia eginaz. Ogia egiteko prozesuan erabiltzen den irina garai batean nola ehotzen en erakutsiko dute Agorregiko ur-errota zaharrean. Bisita egin nahi duten helduek 5 euro ordaindu beharko dute, 5-12 urte bitarteko hurrek, berriz, 3 euro.

Oroitzapena

Ni Ijorretakoa - Iurreta-
naiz, Durangaldekoa, eta
gure baserri inguruan, eza-
gutua nuen umetan, Ama-
tzakoerrota baserrian bizi
zen Patxi Arruti aiarra. Zigarro mutxiki-
na ezpanean kentzeke bere larogeita ur-
tetan segan bezain eroso solas patxara-
tsua gogoko zuena eta igandetan ardo
txuriari laguntzeko pare bat barkillu
bustiaz edo barkilluari laguntzeko pare
bat, azunbre bat ardauxuri husten zi-
ttuen gizon iharra. Gerora Txomin Agi-
rrearen *Garoa* irakurri nuenean *Hura
zan gizona hura, zazpi oin ta erdi bai
luze, zabal...* hori irakurtzerakoan Patxi
Arruti, *Patxi Errota* irudikatzen nuen.

Durangon ura behar zela-eta Ijorreta-
ko mendi baten tunel bat egin behar izan

zuten, bestaldeko urak erakartzeko Du-
rangora. 1915 inguruan ekin zioten men-
dia zulatzeari eta pikur eta palarekin hor
non agertzen den Patxi Arruti, Aiakoa.
Ostatu hartu zuen Amatzakoerrota,
eta nola ez! bertako alabarekin ezkondu,
Antonirekin.

Nire umetan zenbat aldiz ez ote ginen
izan errota horretan arto eta gari zorroe-
kin! Patxi erakutsi zizkidan Izuelako
Artzaiaren:

*Txakur txiki gorritxo bat
faltatu zait neri,
arras galdu zan eta
ez da iñon ageri;
ez diot maldiziorik
bota nai iñori,
artaz baliatzen dana
ongi bizi bedi.*

*Manterola errotari
gizon abilla da,
nere txakur txiki ori
ark berak illa da;
azeria duela
or ibillia da,
zenbait bildu naia badu
ark familiyara.*

Gerora hainbat aldiz Txistulari eta ko-
ruekin Pablo Sorozabalen *Bigarren Ka-
lez-kale* bertso hoiengatik zatiño bat kantatu-
takoa naiz.

Aita Antonio Zavalak jesuitak ere, ber-
tsoak biltzeko asmotan berak sortutako
Auspoan jaso zuen eta ilusioa egin zidan
gure auzoko Patxiri esker Izuelaren bio-
grafia osatzeak: Agustin Arruti Larra-
goien, *Izuela* 1780-1837.



Txokoak eta jendea Gaztaina erreak udazken giroan

Lardizabal eskolako guraso-elkarteak antolatuta gaztaina-eguna izan zuten Aian azaroaren 10ean. Txikiek Ibai Esoainen ipuin, bertso eta jolasekin gozatu ondoren, frontoira hurbildu ziren, gazte eta helduekin. Gailetak jan eta gero, danbolinetan erre eta kukurutxotan sartutako gaztaina beroak probatu zituzten udazken giro hotzean.



EUSKAL HERRIA ETA ARGENTINA BATEGINDA

Aurtengoa ez da izan Gozategi taldearentzat Argentinako Euskal Aste Nazionalen lehenengo aldia. Baina 15 urte zeramatzen bertan izan gabe, azkenekoz Rosarioan izan baitziren 1998an. Aurretik Necochean eta Mar de Plata egon ziren 1995 eta 1996an.

Baina 1998tik hona aldaketa ugari izan ditu taldeak, tartean taldekideak. Horietako askorentzat esperientzia guztiz berria zen Argentinakoa. Oraingoan hiru oriotar izan dira Gozategiren izenean, Asier Gozategi bera eta 2010etik hona taldearen parte diren Iker Gurrutxaga eta Iñigo Perona.

Euskaldunon ohiturari jarraituz, janik eta edanik ez zen falta izan Euskal Aste Nazionalen. Guztia euskal musika doinuez lagunduta, jakina.

Afariak eta bazkariak kiroldegi moduko toki handi batean egiten ziren. Lehenengo eguneko afaria kenduta, beti haien tartean bazkaltzen genuen. Otorduen atzetik, ordea, erromeria

modukoak egiten ziren: batzuetan zuzeneko musikarekin eta disko jartzaile batekin bestetan. Ia guztietan eszenatokian bukatu genuen, kontatzen du Asier Gozategik.

Kontzertua Villa Mariako anfiteatroan eman zuten, ia 4.000 lagunengatik aurrean. *Festaren jiran 2.000 inguru lagun zirela kontuan hartuta, sekulakoa da hainbeste jende gerturatu izana esan digu Iker Gurrutxagak.*

Iñigo Peronari bertakoek duten euskal kontzientziak harrিতuta utzi du: *12.000 kilometrotik gora daude Euskal Herriaren eta Argentinaren artean eta sekulakoa da Euskal Herria gertuago sentitzeagatik bakarrik euskaraz dakiten pertsonak badirela jakitea.*

Izandako bizipenak eta gero, *Agur bat baino Gero arte bat esanda itzuli dira Gozategikoak Villa Mariatik. Denak irakurtzeko, sartu www.karkara.com/blogak/gozategi-argentina-tour-2013 helbidean.*

ARGAZKIA: IZENA ABIZENA INFOR.: GOZATEGI

karkara

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.





Salatxo abesbatza, 20. urteurreneko ospakizun kontzertuan, Orioko San Nikolas elizan. KARKARA

Hogei urte eta gero, Salatxo kantu giroan astero



Musika eta kantuak pozten ez dituen ez omen da parte onekoa, baina beraiek pozteaz gain **20 urtean herritarrek poztu dituzte Salatxo abesbatzako kideek**. Santa Zezilia hurrengoan kontzertu batekin ospatu zuten hogeituro urteko ibilbidea eta pauso berri bat eman dute bidean aurrera.

TESTUA: IRATI AGIRREAZALDEGI
ARGAZKIAK: KARKARA

Eztarri txarretik ez dela kantu onik ateratzen dio esaerak, baina 20 urte luzez ahots ozena mantentzeko Salatxo abesbatzako kideen eztarriak batere oker ez daudela argi dago.

Kanturako ez ezik hitz egiteko ere azaldu dute gogoia Salatxokoek eta hasieratik abesbatzan dauden hainbat lagun eta orain dela gutxi sartutakoek koruaren berri azaldu digute, sorreratik hasi eta hogeituro urteotan zehar bizitako kantu hotsak herrian zabalduz.

Kantu aldetik hutsunea zen herrian, baina, era berean, baita hutsune hori betetzeko gogoia ere. Parrokiako abesbatza beti egon arren, 1984tik 6-7 urte ezer gabe pasa zituzten kanturako zaleek. Musika Eskolako ikasleekin Salatxo Txiki sortu eta gero helduen Salatxorako deialdia egin zuten. Kantuz bete zuten zuloa, beraz, adin guztietako jendearekin abesbatza mistoa eratuz. *Hasieratik Salatxok bere nortasuna zuen, federatua zen, baina musika eskolaren nolabaiteko babesarekin. Entsegu lokalak ere udal-txe zaharrean, musika eskolako lokal-tan, zeuden. Bost urte-edo egin genituen han eta gero haurreskolara – gaur egun musika eskola dagoen tokia – pasatu ginen. Han 10 urte egin genituen jende asko-*

rekin eta gaur egun Kosta Tailerrean egiten ditugu entseguak, azaldu du Salatxon hasieratik kantari ari den Jose Antonio Lertxundik.

Urtetan gora, jende kopuruan, ordea, pixkanaka behera egin du. 60 lagun izatera iritsi ziren; Musika Eskolan matrikula-tuek lagunak eraman zituztelako eta senar-emazteak ere animatu zirelako besteak beste. *Irteeretara beren bikoteekin laguntzaile modura etorri eta giroa ikusita haietako batzuk abesbatzan sartu ziren gero*, dio Ione Iparragirrek. Gazte askok ordea, utzi zuten Salatxo pixkanaka: ikasketengatik, ezkondu zirelako, beste herri batera joan zirelako... Azken aldian, berriz, kopurua egonkortu da eta gaur egun 30 lagun inguru daude abesbatzan.



Jose Antonio Lertxundi tripleetatik aritu izan da abesbatzetan kantari eta Maribi Ibarbiaren bidea ere umetan, bost urte zituela hasi zen Patxi Olidene-kin, gero Martinekin segi eta Salatxon hasi arte: *musika nire bizitzako parte da. Kantuaz gain, txistua eta biolina ere, jo izan ditut.* Ione Iparragirrek Donostiako abesbatza batean egin zuen proban ia urtebete, baina Salatxo sortu ahala herrian bertan hasi zen kantari. Marije Lizasoren Salatxorako sarrera beranduagokoa da. Musika Eskolan hasi zen ahotsa lan-tzen eta hango irakasleak animatu zuen abesbatzara. Koruan azkenengotariko hasi dena da Mirene Elizondo. Hasieran beste adin bateko jende artera sartzeak erreparoa eman zion arren, txikitatik izan du kantua gustuko eta Olaxka eta Uhats taldeetan ibilita 16 urte betetzeko zain egon zen Salatxon hasteko.

Kantu estilo eta hizkuntza asko

Askotariko jendea eta abestiak ere denetarik: polifoniak, folklorea, euskal kantuak, operak, pelikuletako soinu-banak... Hizkuntzari dagokionez ere pila batetan kantatzen dute: alemanez, latinez, errusieraz, gaztelaniaz, ingelesez italieraz... eta noski, euskaraz. Hizkuntza aldetik pixkanaka ikasten dituzte hitzak. *Batzuetan zuzendariari eskatu izan diogu partituran idazteko esaten den bezala, baina partitura ez dela ukitu behar esaten du eta buruz ikasteko edo apunteak guk hartzeko. Probatu genuen ingelesez zegoen kantu batekin nola ahoskatu behar zen idatzita, baina ingelesa zekien jendearentzat hori irakurrita zailagoa zen, kontatu digute Salatxokoek.*

Gehien bat polifoniak izaten dira. Adibidez, Orion urtero San Pedro eta San Nikolas Egunetako mezetarako zerbait berezia prestatzen dute: meza bat latinez edo euskaraz.

280 obra inguruko artxiboa dute abestu ahala handituz doana. Abestiak kontzertuaren arabera aukeratzen dituzte eta orain, esaterako, 20 urteetako piezak berreskuratzen dituzte.



“Probatu genuen ingelesez zegoen kantu batekin nola ahoskatu behar zen idatzita, baina ingelesa zekien jendearentzat hori irakurrita zailagoa zen”

“Meridako konkatedralean abestu behar genuela eta apezpikuak eskainiko genituen kantuen programa eskatu zigun. Euskaraz abestu behar genuela ikusi zuenean itzularazi egin zizkigun esanahia jakiteko”

“Ipar Euskal Herrira edo Kataluniara joanda, sarrera ordaindu behar bada ere jende pila bat egoten da kontzertuetan, efektu zoragarria da guretzat”

“Salatxon nagoenetik konpromisoz joaten naiz batzuetan kontzertuetara eta kantu ezagunak direnean gogo gehiagorekin entzun arren, askoz nahiago dut abestea. Entzuteak ez baina kantatzeak zorutzen nau”

“Kirola gustuko duenak askotan egin nahi du eta kantatzea kirolaren parekoa da guretzat. Adrenalina botatzeko modua”

“Lagun gazteei komentatu arren parrandarako daude kanturako baino gehiago. Ongi pasatzen dugula esaten diet, baina abesbatzen kontua zaharrentzat dela uste dute”



Ione Iparragirrek esan duenez, koruko kideek ere proposatu izan dituzte abestiak edo partiturak aurkitu. *Batzuetan doinu bat harmonizatu izan dugu edo partitura aurkitu arren gurea abesbatza mistoa izanik ahots guztietarako moldaketak egin behar dira; zortzi ahosetara egin behar da eta askotan ezin da. Obra orekatuak aurkitu behar dira, esan du Jose Antonio Lertxundik.*

Kontzertuak etxean eta kanpoan

Salatxok Orion egin ditu emanaldi asko, baina oriotarren kantuak beste makina bat txokotan entzun dira. Bereziak izan diren kontzertuei buruz galdetu eta asko etorri zaizkie gogora. Besteak beste Kur-saalean Belenzaleen Elkarrekin antolatuta Zarauzko parrokiako abesbatzarekin Gabonetako pregoia abestu zutenekoa; eta Italiara, Noruegara, Euskal Herriko iparraldera eta Kataluniarako bidaiak.

Maribi Ibarbiak bidaiak horietako batean gertatutako pasadizo bat ere kontatu digu: *Extremaduran, Meridako konkatedralean abestu behar genuela eta apezpikuak eskainiko genituen kantuen programa eskatu zigun. Euskaraz abestu behar genuela ikusi zuenean itzularazi egin zizkigun esanahia jakiteko.*

Etxean gehienetan larunbata aukeratzen dute kontzertuetarako eta herriko jendea entzutera joan arren, kanpoko abesbatzak entzuten gutxi batzuk izaten dira, onak badira ere. Kanpoan egindako emanaldiak gogoratuz zera esan digute: *Ipar Euskal Herrira edo Kataluniara joanda, sarrera ordaindu behar bada ere jende pila bat egoten da kontzertuetan, efektu zoragarria da guretzat. Solsonako -Lleida- katedrala beteta ikustea erabat harrigarria izan zen eta Maulen ere jendetza batu zen. Hemen, ordea, kobratuz gero ez litzateke inor etorriko. Maribi Ibarbiaren ustez, hemen, akustikarengatik, kontzertu gehienak elizan egiten direnez, jendea nagikeria sortzen dio. Iruditzen zaie opera kantatuko dugula eta aspergarria izango ote den, baina ez, denetarikoa kantuak abesten ditugu.*



Jende asko dago abesbatzen kontzertuak aspergarriak direla esaten duena eta Iparragirrek bera ere batzuetan aspertzela onartu du. *Salatxon nagoenetik konpromisoaz, joaten naiz kontzertuetara batzuetan eta kantu ezagunak direnean gogo gehiagorekin entzun arren, askoz nahiago dut abestea. Entzuteak ez baina kantatzeak zorutzen nau.*

Ikasi eta zaindu

Hiru zuzendari izan ditu Salatxo abesbatzak: Marina Lertxundi zazpi urtez, gero Idoia Azurmendi 2006ko apirilera arte eta ordutik Igor Arroyo dago. Zuzendariak abestiak aukeratu, nola kantatu behar dituzten erakutsi, erritmoak markatu... egiten dute, baita kantariei beste hainbat ikasketa eman ere. *Hasi ginenean batzuk bagenekien solfeoa eta beste batzuk batere ez. Hori ikusita, zuzendariak erabaki zuen astean behin, ez zekiten horiei, solfeo pixka bat erakustea, behintzat partiturak irakurtzeko adina. Orain moldatzen dira, dio Maribi Ibarbiak.*

Zuzendariak badakite kantariak ez direla profesionalak, zaletasunez joaten direla, beraz, *zerbait gaizki eginez gero errietta txikia baino ez dugu jasotzen, broma antzean gainera, dio Iparragirrek.*

Abestea ariketa fisikoarekin parekatu dute. *Gauza asko hartu behar dira kontuan: ahotsa, haizea, hizkuntzak, tonua, erritmoa, solfeoa... Kirola gustuko duenak askotan egin nahi du eta kantatzea kirolaren parekoa da guretzat. Adrenalina botatzeko modua, dio Lizasok.*

Baina ahotsa modu berezian zaindu behar ote den galdetuta norbere arabera dela esan digute. Festetan, esaterako, edari hotzak edateak, tabernetan altu hitz egiteak... kalte egiten dielako ateratzen ez direnak, badira baita pixka bat zainduz parranda handiak egindakoak ere. Eztarria berotzea oso garrantzitsua da beren esanetan. *Muskuluak berotzeko ariketak egin behar dira: arnasa hartu, diafragma kontrolatu, masailak mugitu, erlaxazioa... Berotu gabe hasi ezean pila bat igartzen da. Teknika bokala ere ikas-*

OH HAPPY DAY LAN ASKO POZ ITURRI

Ez da batere ohikoa abesbatzak telebistan kantuan ikustea eta are gutxiago lehian. Baina Euskal Telebistak *Oh happy day!* ahots taldeen lehiaketa antolatu zuen eta han parte hartu zuen Salatxok.

Talde kide batzuk besteek baino gustukoago izan zuten telebistako esperientzia. Ione Iparragirrek umeek bezala gozatu zuen arren, egindako lana gogorra izan zela esan digu: *Egunero izan genituen entseguak. Denbora askorik ez geneukan abestiak prestatzeko, hizkuntza ere kontuan hartu behar zen programak jartzen baitzuten abesti batzuk eta besteak guk aukeratu, koreografiak ere egin behar ziren, arropak aukeratu... Grabazio egunetan ordu mordo pasatzen genuen kameraren aurrean: fokoak, urduritasuna... Baina egindako dantzak gogoratu hutsak irribarrea jarri dio ezpainenat.*

Marije Lizasori ez zitzaion batere gustatu. *Ez du zerikusirik normalean abesbatzan kantatzen dugun moduak telebistan egiten genuenarekin.*

Maribi Ibarbia hasieran gustuko joan arren, gero han ikusitako azpikoek gogaitu zuten: *guri esaten zigiten estrategia geneukala, baina denok genuela uste dut. Astero bi talde arriskuan zeuden eta kantu bat prestatu behar zuten ea ondoen nork abesten zuen frogatzeko. Beraz, arriskuan ez bageunden gutxiago prestatutako abesti bat eramaten genuen. Bestalde, zain geundela elkarrekin egoten ginen eta egun hartan zein taldek irabaziko zuen ia denok bat etorri eta epaimahakoek gutxien uste genuena aukeratzeko zuten.*

Abesbatzentzako propio ez zen telebistako formatua, baina dantza eta kantua uztartuz paper txukuna egin zuten Salatxokoek. Mirenek, telebistaz jarraitu zuen lehiaketako haien ibilbidea, orain kantu lagun dituen eta inbidiaz entzuten ditu telebistako kontuak, bera gustura joango litzatekeela esanez. Beraz, ea noizbait izaten duen Salatxok telebistara berri joateko aukera.



ten dugu. Eztarritik, besterik gabe, kantatuz gero ahots gabe erraz gelditzeko arriskua baitago.

Hala ere, abesbatzan aritzeko oinarriak gogoa eta ahots pixka bat izatea baino ez dira beren ustez.

Salatxon lagun artea aurkitu dute askok. Astean bi aldiz joaten dira entsegetara eta horrela eguneroko jarduna mozteten dutela dio Marije Lizasok. *Telebista aurrean eseri beharrean, mugitzeko, beste jende batekin egoteko, gustuko gauza bat egiteko, beste gauza batzuetaz hitz egiteko... modua ematen du.* Denak bat datoz esatean kanturako ez ezik bestela apenas ezagutuko zuketen jendearekin harremana izateko modua eman diela Salatxok, baita bidaiatzekoa ere.

Ahots berriak

Ez dira gutxi 20 urte, baina bete nahi litzukete abesbatzako kideek beste horrenbeste kantuan. Horretarako, ordea, jende gehiago behar dutela eta arnas berria beti ongi etorria izango dela diote. Maribi Ibarbiaren esanetan, *lehen koru batean abesteak sona gehiago zeukan, orain, ordea, egoera aldatu egin da.*

Gazteak dira etorkizuna beren ustez, umetatik hasi eta gerora Salatxora joango diren abeslariak. *Gazteak gaztea ekarriko luke eta orain sartu berri direnak arnas berria dira eta hauek ikusita errazago gerturatuko dira, diote. Mirenek, ordea, ez du kontua batere argi ikusten: *lagun gazteei komentatu arren parrandarako daude kanturako baino gehiago. Ongi pasatzen dugula esaten diet, baina abesbatzen kontua zaharrentzat dela uste dute.**

Zer egin, beraz, jendea abesbatzara erakartzeko? *Krisia egon da abesbatzetan ere, beraz, jendea gu entzutera etortzen ez bada guk joan beharko dugu berengana. Horretarako egin dira kantu jirak, musikalki behar bada ez da egokiena, baina... Pintxo txikiteoan hasi beharko dugu kantuan, dio Lertxundik.*

20 urte lan askoren doinu eta ahotsa leunduz aurrera ere kantuan jarraituko duen ahotsa, Salatxo abesbatzarena.

Joandakoak eta etorritakoak

Asko dira azkenaldian, arbasoen modura, jaioterria atzean utzi eta atzerrira lan bila doazen euskaldunak. Bertan aukerarik ez denentzat eta zerbaiten desioan doaz erbestera, bizitza aurrera ateratzeko saiakeran etxean ematen ez dizkieten baliabideak aurkituko dituzten itxaropenez. Txoriek hotza datorrenean egiten duten bezalaxe egiten dute ospa urrutira, goxotasun bila, hegan. Ekaitz guztien aurka, ilusioaren itsasoan arraunean paladaz palada, beren bidea egiten. Esperantzak patroilanak egiten dituen *pateran*. Etorkizunean eguneroko ogia izan dezagun, etxean, orain arte, hutsik eduki dugun plateran. Ameriketara xentimorik gabe joan eta bost milioien jabe bueltatu zen euskaldun diruzalearen balentria errepikatzeko prest. Bihotz tristeak txintxinaren doinuz dantzan jartzeko gogoz.

Bertako guztia harrapatu ondoren Somaliara doaz hemengo arrantzaleak bi-

zitzeko aukerak arrantzatzera. Goaz eta gatoz. Datozenei atea ixten diegun bitartean guri alfonbra gorria jartzea desiratzen dugu, Portugaldik hona AH-Ta egitera datozen langile zintzoen moduan bizitzaren trena pasatzeko beldurrez. Joandakoak eta etorritakoak. Hemengo baliabideak porlanez betetzen jarraitzen

dugu kanpotik etorritako barazkiak irensten ditugun bitartean. Kanpoan dauden lehengaiak lehergaiz ekarriz.

Gero eta lehergai gehiago gero eta lehengai gehiago. Etorritakoak eta joandakoak. Datoz eta doaz. Pentsa, petrolio ere etorkina omen da!



Joan etorrian dabilena nomada da, etorri eta joatea normala da baina, hemen, gure artean sarritan, badirudi, ez direla ongi etorriak. Surfean bezalaxe, beste hondartzetako olatuen bila bidaiatzen dugu eta hemengo hondartzetara datozenak olaturik hartu gabe bidali. *Lokals only!* Gure begirada eta mingain zorrotzek egiten dute somaliar piraten papera. Aukera bat eman aurretik epaitu. Desterratuak enterratu.

Goseak bultzatuta nahitaz herria utzi behar duena ez da imigrantea, gerrate amaigabeetatik ihesi datorrena ez da imigrantea, lapurtua berreskuratzera datorrena ez da imigrantea... erbestera-tua baizik.

Joan etorrian dabilena nomada da, etorri eta joatea normala da baina, hemen, gure artean sarritan, badirudi, ez direla ongi etorriak

AMAIA ESTANKOA
Tabakoak
Prentsa
Amara Larrinaga
M. 635 732 367 - Exp. 79 002 T31006 943789-13 12

elkaritogia
ANTILLA
justoiz
Abeslari Kalea, 2 - Tel. 943 83 23 00

INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA
Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

Orioko Herri Ikastola
Guraso Kooperatiba
ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

azkue
Tf: 943 13 04 38

PIZZERIA KALETA
ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

Zaragueta Herri Eskola Orio
telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezakuntza.net

MASAJISTA
ANDATZA 22, A BEHE-SOLAIRUA, AIA
- ETXEKO ZERBITZUA
- MASAJE TERAPEUTIKOA
- MASAJE ERLAXAGARRIA
- KIROL MASAJEA
Tf.: 676 198 904

Alakranatik ekarri duguna

Alakrana atun ontzian bizitakoaren inguruan iritzia eskatu didate KARKARAKO lagunek, 25 egun Ozeano Indikoan ontziratuta eman ondoren zer den nabarmenduko nukeena. Ez da lantegi erraza eskatutakoa, baya pasa eta bizitakoaren artetik kontu bakar bat bereiztea.

Ezer idealizatzeko borondaterik gabe, garbi daukat zer apartatuko nukeen: arrantza ontzia bizikidetzaz edo konbibentzia eredu iruditutako zait. Mundu zabaletik etorritako 42 lagunek osatzen dute Alakranako eskifaia. Han badira euskaldunak, galziarrak, espainiarrak, senegaldarrak, ugandarrak, seychelletarrak, indonesiarrak eta hegoameriketatik etorritako lagunak. Jatorri, kultura, pentsaera, sinesmen eta ohitura zeharo desberdinak dituzten arrantzaleak. Edozein giza komunitatetan bezalaxe han ere badira arazoak, noski, eta pertsonen arteko tirabirak. Nolanahi ere, honako honek harritu nau: arrantzaleek ontziaren interes komuna beti norbere iritziaren edo interesaren gaintetik jarri izana. Guztien gaintetik dagoen entitate bat da baporea, kasu honetan

Honako honek harritu nau: arrantzaleek ontziaren interes komuna beti norbere iritziaren edo interesaren gaintetik jarri izana. Guztien gaintetik dagoen entitatea da baporea, kasu honetan Alakrana, eta guztiak babesten dute hori. Guztiontzako onena dena norberarentzako ere onena da, eta guztiona den ondarea babesten dute eguneroko jardunean

Alakrana, eta guztiak babesten dute hori. Guztiontzako onena dena norberarentzako ere onena da, eta guztiona den ondarea babesten dute eguneroko jardunean. Adibidez, bazkalondoko tertulian gai delikaturen bati buruzko eztabaida ateraz gero ixilik geratu behar badute giroa ez pipertzeagatik, geratu egingo dira. Edo txikota jasotzea ondoko marinaren zeregina bada, eta hark egin ez badu, txintik ere esan gabe egingo du atzetik datorrenak besteak egin gabe utzi duen lana, horregatik gerra zibilik armatu gabe. Alegia, jendeak badakiela lau hilabete atunontzi batean elkarrekin bizitzea lan nekeza dela, elkarbizitza gogorra dela, eta guztiak jartzen dutela zerbait horren alde. Zerbait gertatzen da ontzi horretan legionario espainiarrak eta Bermeoko euskal independentziazaleak armonia ederrean bizitzeko. Musulmanak, kristauak eta agnostikoak erlijioaren inguruan adarra jotzen jarduteko inor muturtu gabe.

Ia 35 egun egon gara telebistarik, mugikorrik eta internetik gabe. Gogoan dut Euskal Herrira itzuli eta lehena piztu nuen aparailua irratia izan zela. Badakit oso erraza dela gaur egun politikariek sartzera eta orain esatera noana haizearen aldekoa dela erabat, hemen eta orain. Baina irratia piztu eta politikari bat ari zen beste batengatik gaizki esaka bi pezeta kontu baten inguruan, lau urteko neska edo mutil koskorra baillitza, guztiaren errua besteari boteaz. Irratia itzali nuen, oraindik Oriora itzuli ez eta gogaituta. Errua beti bestearena eta arrazoa beti gurea delako ideia hain barneratuta daukan gure gizarte honetan berriro bizitzen hasteak ikaragarritzko nagikeria eman zidan. Lantegian, kalean, etxean, ikastetxean, politikan, familian, Udalean, arraunean... norberak beti arrazoi, errua beti besteak. Puff... Inoiz konturatuko al gara erremediario gabe elkarren ondoan bizi behar dugula eta komunitate bat osatzen dugula?

Horixe ekarri dut Alakranatik, hilabete batean behintzat, elkarbizitza eredu izan den giza komunitate baten irudia. Ea zenbat irauten digun!

Argirik gabe?

Arunbata zen, 13:30ak, etxean bazkaria prestatzen ari ginela... *argia joan da! Ba, segituan etorriko da berriz ere*, pentsatu nuen, baina ez zen horrela izan, sei ordu luze pasatu ziren.

Bitarte horretan, denbora nola pasa ez nekiela, inguruko begira aritu nintzen. Ederki antzematen zen zerbait pasatzen zela. Lehenik, balkoira irten, ea gu bakarrik ote ginen argi faltan edo kale osoan zen, etxeko baten konkurtsoa zirudien. Panorama ederra zegoen: autoa garajera sartu nahi eta ezin; alarmak jo eta jo; tabernak itxita; etxean, berriz, ez igogailurik - azken solairuan bizi direnak haur aulkiak igo ezinik -, ez kalefazioirik, ez telebistarik, ez frigorifikorik - ai izeozgailua! -, ezta bazkaririk ere - eguerdiko 13:30ean joan zen argia -.

Nola edo hala egunez moldatu ginen, baina behin iluntzen hasi zuenean... *Non dago linterna? Hementxe, aurkitu dut, baina pilarik gabe... Itxoin, uste dut kandelaren bat badudala nonbaiten...*

Honek guztiak, zer pentsatua eman zidan, zein garrantzitsua bihurtu den gure eguneroko bizitzan argi-indarra. Une horretan, Indian ezagutu genuen emakume baserri-tarra etorri zitzaidan burura; irratia pilarekin zuen eta iluntzearekin batera etxeko kandelak eta linternaren bat pizten zituen, sua noski egurrarekin eginda... Han horrela da egunerokoa, gu berriz...



HERRETEGIA
PATXI OLIDEN
ERRETEGIA

Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripaki, odolki,
txokorra, txorizo, kroketak...

PATXI OLIDEN

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

Igo zaitetz haize berrietara!

Galeria I

943890416 - 677149934
galeria1orio@hotmail.com

Maidier Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361
www.podologia-oinarri.com

oinarri
PODOLOGIA ZENTROA

Portu ERRETEGIA

Santo Erreka Auzoa, 29
943 89 44 34
20809 AIA-ORIO

*brakete lucente oharren
purrak erotik errotu noren*

Tel.: 943 835845

ROSANA ARRUTI
ARGAZKILARIA

Aita Lertxundi, 26
-Orio-

foto@rosanaruti@gmail.com

Kinkladenda - Ume arropa

argine

www.lasonet.com/argine
Tel. 943 13 48 89

2,5eko DESKONTUA FAMILIA
UGARIEN TXARTELAREKIN

Carmen eta Txomin
ARRANDEGARRA

943 83 05 37 / 943 83 27 47

uranga
autozerbitzua

Aliprox

Eusko Gudari kalea 13-15
ORIO
943 83 38 75

Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI
Tf / fax: 943 13 00 77
sagastileihoak@telefonica.net
Arrantzale kalea, 65
20810 Orio (Gipuzkoa)

Gabon
TABERNA

plater koloreak argintxoak

Tfnoa: 943 83 06 09

24 orduko zerbitzua

IGLESIAS
SARRAILAGILEAK

www.iglesiasscerra.jeros.com

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesiasscerra.jeros@yaho.es
ROBIO ORIO

Santi Barranco aseguru agentea

Arizaga 2, 2. ezkerria ORIO
Tf: 616 581 398 - 659 216 221 e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

SEGUROS BILBAO | Grupo CATALANA OCCIDENTE

izarra
GIZON MODA

Balea, 1 tel. 943 13 39 30 ORIO
www.izarra@hotmail.com

ITZALA

kartela jokatzen
a proposen

tel. 943 83 12 59

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak:
-Arrain zopa
-Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel: 943 83 00 05/
943 13 25 32

Inkesta

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa

Azaroaren 30ean erabakiko da aurtengo Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finaleko zortzikoa. Nola bizi dute herriko bertsozaleek txapelketa?

“Kritiko izan naiz beti puntuen gorabeheran”

Pilotazale amorratua naizen arren, alde batera utzi eta telebistaz ikusi ditut bertsolari txapelketako saioak zuzenean eman dituztenean, baita beste egunetan laburpenak ere.

“Nire sailkapenak ez du epaileenekin antzekotasunik”

Lau urteko itxaronaldiaren ondoren gainean dugu berriz ere Bertsolari Txapelketa Nagusia. Gainean bakarrik ez, jadanik finalaren zain gaude bertsozaleok. Zortea izan dugu-

“Bertsolari gazteak gora datoz, beste eskola bat dute”

Aitarengandik jaso genuen bertsozaleasuna eta aurten txapelketako saio guztietan izan naiz. Entzule gazte, heldu eta zahar, giro polita sortzen da asteburu arratsaldetan.

“Entzule gazte asko mugitzen ari da saioetan”

Azken finalerdia eta finala baino falta diren honetan, nire ustez, txapelketa oso martxa onean doa. Saioetan oso giro ona egoten da jende artean eta aurreko txapelketan baino

Saioak onak iruditu zaizkit orokorrean, baina kritiko izan naiz beti puntuen gorabeheran eta iruditzen zait epaileak batzuekin eskuzabalago ez ote diren ari besteekin baino. Adibidez, final erdieta-ko lehen itzulian Irazu ongi aritu zen eta puntu gutxiegi eman zizkioten, baita Lizasori ere lehengo bertsokeran arituta. Jon Maia niretzat ez da behin ere punta-koa izan eta oraingoan eman diote egurrari. Iturriagari, ordea, bi poto galantak egin, eta hala ere, mantendu dute.

nok finala BECen bertan ikusi ahal izango dugu, besteek aldiz telebistaz edo irratiz jarraitu beharko dute.

Aurten ere jarraitzen ari naiz txapelketa. Saiotara joateko aukera izan dudanetan bertatik, bestela telebistan ikustearekin konformatu behar. Ikusgarria da gaur egun bertsoak duen zaletasuna; ia saio guztietako sarrerak amaitu dira! Denetarik ikusi dut txapelketan, gustuko gauzak eta ados ez nagoenak, puntuazioak gehienbat. Askotan iruditzen zait ez

Txapelketan garbi ikusi dut gazteak gora datozela eta indar handia dakartela. Lehengo bertsokerarekin alderatuta beste eskola bat dute, gehiago dakite eta hori nabarmentzen ari da

Puntuazioari dagokionez, beti pentsatu izan dut epaile lanetan ari direnek gu baino gehiago jakingo dutela eta haiek esandakoa onartu behar dugula. Baina, Elizondoko saioan, esaterako, Iturriaga hirugarrengotzat neukan eta lehena izan zen, beraz, ez dago asmatzerik.

jende gehiago dabilela dirudi. Saio askotara joan naiz entzule gisa eta denbora konturatu gabe pasatu izan zait; ordura-ko hasi eta beti ordu bertsuan bukatu.

Gipuzkoako txapelketan bezalaxe jende gazte asko mugitzen ari da Euskal Herrikoa ere. Asko harritu nau saioetarako sarrerak zein azkar bukatzen ari diren; saio denetan aretoak beteta egoten dira. Bestalde ez nuen inola ere espero BECeko finalerako sarrera guztiak bukatuko zirenik.

Finaleko zortzikoa asmatzea zaila bada ere, finalerdien bigarren buelta falta dela nik hauek jarriko ditut: Lujanbio, Arzallus, Colina, Mendiluze, Sarriegi, Alaia Martin, Gaztelumendi eta Iturriaga. Elortza Iturriaga baino gehiago gus-tatzen zait eta ondo ikusi dut, baina fina-leko atarian ez dakit ba zer gertatzen zaion gehienetan. Txapel-dun, berriz, Arzallus, Maialeni ezer kendu gabe, noski.

Jabier Arruti, Biraola

dudala ideiarik ere, nire baitan eginiko sailkapenak ez baitu izaten antzekotasunik epaileek emandakoarekin.

Borroka gogorra dago finalerako txar-tela lortzeko bertsolarien artean, zeinek lagunduko dio aurten Maialen Lujanbiori? Hona hemen nire kiniela: Amets Arzallus, Igor Elortza, Beñat Gaztelumendi, Sustrai Colina, Unai Iturriaga, Aitor Mendiluze eta Aitor Sarriegi.

Ane Garmendia

Finalistak nahiko argi dauzkate: Arzallus, Iturriaga, Elortza eta Gaztelumendi bai; Mendiluzek eta Colinak saioa egiteko daukaten arren erraz dute sailkatzen; eta Sarriegirekin dut zalantza, baina hura ez sartzeko Unai Agirrek puntu asko egin behar ditu.

Txapel-dun, berriz, Amets Arzallus izatea nahi nuke, baina ez ninduke harrituko Maialen Lujanbio izateak.

Jesus Mari Lizaso

Bertsolariak maila oso ona erakusten ari dira. Askotariko gaiei modu txukunean erantzunez gehienetan, eta salbuespenak salbuespen saio on asko izan dira. Epaileek puntuak zeren arabera ematen dituzten ez dakidanez, saioetan entzun eta nire gustuen arabera izendatu dut finaleko zortzikoa: Lujanbio, Elortza, Arzallus, Gaztelumendi, Iturriaga, Mendiluze, Colina eta Sarriegi.

Larraitx Lizarralde

Moda desfilea, jendez eta modaz gainezka

Kritika Moda desfilea

Antolatzailea: Arkupe merkatarien elkarteak arropak eta osagarriak jarri zituen ikusgai Arraunetxean azaroaren 9an.

Beste konturik ez zen herrian, larunbat barratsaldeko desfilea. Azaroaren 9an, 17:20 inguruan iritsi nintzen Arraunetxera. Euri jasa izugarria ari zen arren, jadanik jendetza ilaran, atek noiz irekiko deseatzen. Berehala bete zen guztia.

18:03ean aurkezleek hasi zuten festa, umore puntuarekin gainera. Haur, gazte nahiz helduak ikusi ahal izan genituen oholtza gainean. Baita jaioberriren bat ere. Adin, gustu eta estilo askotarikoak guztiak. Gehienak oriotarrak, baina baziren Aia eta Zarauzko haur zein gazteak ere.

Orokorrean izugarritzko segurtasuna transmititu zuten taula gainean; bakoitza bere estiloan eta eroso zihoanaren seinale. Dantza egitera animatu zenik ere bazen! Talentua dago gero herrian!

Arropari dagokionean estilo askotarikoa ikusi ahal izan genuen, aukera zabala benetan! Ez dezala inork esan Orion ez dagoela estilo eta adin askotako jendearentzako arroparik! Ezustean hartu ninduen egia esan! Arropaz gain, beste zenbait osagarri ere ikusi genuen: eskola-materiala, aterkiak, maletak, betaurrekoak... Zuzeneko mu-



Txikienek poza eta segurtasuna erakutsi zuten pasarelan. KARKARA

sikaz ere gozatu genuen. Zorionak Ane, ederra benetan!

19:30ak aldera erabat huntuta igo ziren herriko merkatariak taulara. Izugarritzko giro goxoaz disfrutatu genuen; ikusleok ez ginen nekatu txaloak jotzeaz eta hori heldu egin zen oholtzara.

Hurrengo egunetan, beste konturik ez zen herrian, larunbat arratsaldeko desfilea.

Zorionak, beraz, antolatzaileei eta desfileatzen zuten haur, gazte nahiz helduei.

Ea horrelako ekintzen bitartez gure herriko dendei bultzada ematen diegun. Hurrengo denboraldiko moda desfilearen zain geldituko gara!

[MIREIA A TORRASAGASTI]

Ikasleak idazle
Ione Zinkunegi

Zabor edukiontzia

Orioko zabor edukiontzien banaketaz ez da asko hitz egiten, izan ere, batzuentzako oso ongi kokaturik daude, baina beste batzuentzako oso gaizki.

Atez-atekoaren eztabaida hasi zenean, Udalak edukiontzia asko kendu eta beste batzuk beste tokietan kokatu zituen. Adibidez, Erribera kalean zegoen edukiontzia jada ez dago eta



Ikastolaren aurrean zeudenak ere ez. Eta ondorioraz, inguru horietan bizi direnak, beren etxebiz-

itzetatik oso urruti geratzen diren kaleetara joan behar dute zaborra bota ahal izateko. Adibide argizatuz, Goiko kaleko jendea dugu, Musika Eskolaraino joan behar dira eta zaborra botatzera.

Agian herritar gehienentzat garrantzia gabeko arazoa da hau, baina egia da leku askotan edukiontzia ez daudela ongi kokatuta. Arazo txikitat hartu daiteke, baina konpondu beharra dago.

Atez-atekoaren eztabaida hasi zenean, Udalak edukiontzia asko kendu eta beste batzuk beste tokietan kokatu zituen

FISIOTERAPIA: Garkoltz Aristegi eta Natalia Wierzesen
NUTRIZIONISTA: Garbiñe Aizpuru

sinergia Investigación fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

MANTEROLA S/L
ESFERA ETA RETENTZIOKO
BALBULAK

Santiago azroa - 18 postakutxa
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmanterola@tmanterola.com
20819 ORIO - GIPUZKOA

Esferako balbula
AENOR kalitate zertifikatua

» HANDIK ETA HEMENDIK



“Orion ikusten da Patziku Perurenak *bordaberrismoa* deitzen duen hori. Aizarnazabalen ere ikusten dira etxe adosatuak piztina partikularrarekin, hesi metalikoz inguratuak.”

Koldo Izagirre, idazlea, Berria, 2013-11-13

“Pozik nago TKErekin zerikusirik ez dudalako. Datorren urtean gehiago eta gertuagotik ikusiko naute. Piragua bat edo iola bat erosiko dut udan estropadak ikusteko.”

J.L. Korta, Kaikuko kirol aholkularia, El Diario Vasco, 2013-10-8

» OSPAKIZUNA



Odol emaileak domina jasotzen

Orioko 11 odol-emailek esker ona jaso zuten Oria-Behea bailarako ordezkariak Urnieta Oianume jatetxean egindako bazkarian. Ekitaldian 11 oriotarretatik bost izan ziren: Juan Manuel Aramendi, Maria Isabel Etxeberria, Itziar Sarasua, Pello Azkonabieta eta Rosario Etxeberria. Horiez gain, domina jaso zuten Ion Erkizia, Maria Isabel Gimeno, Maria Eugenia Pagola, Inmaculada Peiro, Mari Carmen Gallardo eta Joxe Olidene.

» ZORIONAK!

Herriko udaltzainei

Isuna jartzeko udaltzainek erabiltzen duten inprimakia euskarazkoa izan arren, isunaren zergatia idazterakoan, gaztelaniaz bete izan dute orain arte askotan udaltzainek papera.

Horregatik Udalak erabaki du hemendik aurrera Orioko udaltzainek euskaraz idatziko dituztela gaizki aparkatutako edo araututako denbora pasatu duten ibilgailuetako isunak, herri barruan.

Isuna jasotzea inoren gutukoa ez bada ere eta hainbat tokitan beso zabal jokatu eta isunik jartzen ez badute ere, zoriontzekoa da jartzen dituztenak gutxienez euskaraz jartzea. Zorionak, beraz, Udalarari erabaki hori hartzeagatik eta udaltzainei isunak euskaraz idazteagatik.

URAITZ
Larindegia
jantzi-ostagarriak
Erdalaia, 3 Tfn: 943 83 18 97

tel/fax: 943 89 00 69
Bekala kalea, 4 - 20.800 ZARAUTZ
URBIDE.o.k.
ITURGINTZA_BEROGINTZA
GASA_BAINU ERAKUSKETA
Prestazioak: laguntza, gasa

RAMIRO
argazkiak
www.fotoramiro.com
fotoramiro@fotoramiro.com
610 69 76 68
943 83 10 48

ASADOR XIXARIO
Eusko Galarren Kalea, 2
Tel. 943 830019 - 0910

XABIER URRETABIZKAIA
- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Atezain automatikoak
60 urte zerbitzua ematen
943 83 17 74
Arrantzaile, 31 20810 ORIO

Bidali ezazu zure albisteak!
ZUZENEAN!!!
karkara.COM



Euskal mezaren entsegua egin dute herriko abesbatzetako kantariak. KARKARA

Denok batera, kantari

Oroimenaren kutxa

Ni txikia nintzen garaitik hona asko aldatu dira gauzak elizan. Gogoratzten hasita: Orduan lau apaiz ziren Orioko elizan. Orain apaiz bakarrak Orioko eta Aiako lanak egiten ditu. Igan-dean bost meza ematen zituzten, apaizak herritarroi bizkar emanez eta latinez. Sermoia pulpitutik ematen zuen, zerutik bezala denen gainerik, ez aldaretik. Emakumeak ez zuen inolako sardiderik ez aldarean ez koruan.

Onerako aldatutakoak, 1962tik 1965era izan zen Vatikanoko II. kontzilioaren

ondorioz. Orion bada bat bategi aldatu ez dena: herriaren kanturako zaletasuna eta gogo. Orduan eta orain ondo kantatzen da Orion, mezatan. Herriak abestu egiten du.

San Nikolas elizan organo berria estreinatu dute. Oso ona omen da. San Nikolas eguneko meza nagusian, organoaren soinua ez da bakarrik arituko, herriko kantari askoren ahots-sinfoniak lagunduko dio. *Euskal Meza* kantatuko dute, orain 50 urte bezala. Hiru koru izango dira batera: elizakoa, Salatxo abesbatza eta Egunsenti otxotea, herriko helduen koru guztiak elkarrekin.

San Pedro egunean ere horixe egin zuten: hiru koruek batera abestu zuten meza

osoa eta, haren barruan, San Pedro egunean bereziki kantatu ohi duten *Tu es Petrus*. Emaizta zoragarria izan zen, bertan ginenon gozagarri. Unai apaizak hitzez azaldu zuen koruen ahalegina eta haren emaitza: *gure herrian gaur egun batzea ez da erraza, zatiketa da nagusi, politika eta hezkuntza dira horren adibide, bakoitza bere aldetik eta giro ilun eta nahasian. Gaur koruek erakutsi digute batzeak merezi duela, batzearen emaitza dela korutik etorri zaigun sinfonia indartsu eta ederra. Alde horretatik erudugarri ditugu, bide erakusle...*

¡ INAKI ITURAIN !

» JAIOTAKOAK

■ Maddi Iriarte Unanue, Orion, azaroaren 17an.

» EZKONDUTAKOAK

■ Aitzpea Gozategi Odriozola eta Josu Zinkunegi Irure, Orion, azaroaren 13an.

» HILDAKOAK

■ Juan Jose Uranga Iruretagoiena, Orion, azaroaren 7an. 82 urte.

■ Joxe Arruti Aramendi, Aian, azaroaren 6an. 92 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:
943 83 15 27



LURDES
IRAKINDEGIA

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

Ille zpaindegia
MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

MIRANDA
AROTZ LANAK

tarima, ate, leiho, eskalera...
behar diren arotz lanak
egingo dituztegu

Urdaneta bidea, 1 -669 42 32 70- ZARAUTZ

PERTSIANAK
AKO MAZ

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

“Barra aldeko lasaitasuna ez dut hango mendi artean sentitzen”

Bakarne Pikabea

Farmazialaria

Lanak eraman zuen Lleidako Pirinioetara, sei hilabeterako joan eta 11 urte pasa da han dagoela. Eskizalea ez izan arren Vaquèira-Beret eski estaziotik gertu, Vielhako farmazia batean lan egiten du eta Bossòst herri txikian bizi da. Oriotik hara begira jarri dugu.

IRATIAGIRREAZALDEGI

Karrera bukatu berri, lantokian bate-re gustura ez, eta fakultateko lagun baten bidez eskaintzaren berri jasota, askorik pentsatu gabe hartu zuen Lleidarako bidea eta farmazia batean ari da lanean.

Hasieratik egon zara lan berean?

Han dagoen jendeak eskiatzea, snow egitea, eskalada edo mendia ditu gustuko, baina ez da nire kasua. Botikaria naiz eta hango farmazia batean egin dut lan beti. Ez da oso samurra han bizi izatea leku guztietatik urruti baitago. Lleidan egon arren, hiriburura iristeko adina denbora behar dut Oriora etortzeko.

Farmazia ikasi zenuen, hemen ez al dago horretan jarduteko aukerarik?

Han baino gehiago, baina ni joan nintzeanean hemen ateratzen ziren lan aukerak

epe laburrekoak ziren. Orain dela urte batzuk izan nuen Usurbilera edo Lasartera lanera etortzeko aukera, baina oraingoan gustura nago.

Hango egoera, beraz, ona da?

Berezia. Zaila da lagunak egitea. Jende nomada asko dago neguan lanera etorri, gero joan eta itzuliko diren ez dakizuna. Harreman ona lortu eta berehala galtzea oso gogorra da. Herria oso txikia da, eta urte guztian han bizi direnak ere oso gutxi, eta horrek sustraiak sortzea zailtzen du.

Lanean ere ez dago garapenerako aukerarik. Orain dela urte batzuk, jende diruduna ibiltzen zen. Farmazia utzita nire kontura jarriz gero beharbada izango litzateke. Orain, esaterako, terapia naturalen inguruko master bat egin dut eta kontsulta txiki bat daukat farmazia-

tik kanpo, baina biztanleria mugatua da urte guztian hortan aritzeko.

Eski denboraldia hasiko da laster. Lan gehiago izango duzue, ezta?

Bai, horiek nire lan egunak dira. Azaroan oporrak hartu ditut denboraldia hasten denerako prest egoteko. Euskaldun mordoak joaten da hara etxe, hotel eta kanpinetara. Frantzian-eta eski estazio asko dauden arren, autopistaz hara joateko ere bide ona dago.

Zuk eskiatzea gustuko al duzu?

Gustuko dut udaran mendira joatea, baina eskiatzea, eskalada edo goi-mendia ez. Egiten ditut hainbat txango, urtean pare bat aldiz igotzen naiz eskiatzera, baina eski garaia da nik lan gehien dudan sasoa eta jai dudan egunetan ez dut pistetara joateko gogorik izaten. Gainera, ez dut erabat ongi eskiatzen ikasi eta ez naiz zalea.

“Jende nomada asko dago neguan lanera etorri, gero joan eta itzuliko diren ez dakizuna. Harreman ona lortu eta berehala galtzea gogorra da”

“Urtean pare bat aldiz igotzen naiz eskiatzera, baina eski garaia da nik lan gehien dudan sasoa eta jai egunetan ez dut pistetara joateko gogorik izaten”

Oriotik zeren falta sumatzen duzu?

Itsasoarena, barra alderako bueltan ikusten denak ematen duen lasaitua han ez daukat. Mendien barrenean, zulo batean gaude han eta arratsaldeko bostetarako iluna da maiatzera arte, argitasun falta dut. Horrez gain, lagunak, familia...

Oriotik zertan ezberdintzen da hura?

Jendearen joan-etorrian. Orio beti izan da turistikoa eta kanpinera etorri izan da jendea, baina erdi-oriotar ere bihurtu dira batzuk. Han mugimendua askoz handiagoa da, jende berria ezagutzeko ona, baina egonkortasuna falta da. Hala ere, eskiatzea gustuko duten oriotarrei bisita egitea gomendatuko nieke. Elur ona izateaz gain oso ondo zaintzen dute. Turismorako ere oso ondo prestatuta dago: masaje eta spa lekuak; gau giroa; taberna batzuk nahiko euskaldunduta, pintxo-potea ere egiten dute. Paisaia ere oso polita da, mendi politikak daude, txango txikiak egiteko aproposak.



KARKARA

» AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

» **Galdutakoak**

■ Urre gorri eta urre zurizko belarririkoa galdu nuen udan. Norbaitek aurkituko balu, deitu mese-dez zenbaki honetara. Tf.: 671 805 419 -Enkarni-.

■ Urrezko lepokoak galdu dit. PE inzialak grabatuta. Norbaitek aurkituko balu, deitu zenbaki honetara: 676 208 466 -Xabi-.

» **Lan eskaerak**

■ Emakumea lanerako prest. Asteburuetan, orduka. Edadekoak zaintzen edo garbiketa lanetan. Tf.: 616 136 439.

■ Mutila lanerako prest. Adinekoak zaintzen edo beste lanetan. Arauzko dokumentazioa eguneratuta. Tf.: 644 360 164.

■ Adineko gizonen zaindari edo beste edozein lan egiteko prest nago. Gizon gaztea, arduratsua eta zaintza lanetan esperientziaduna naiz. TL: 632569121.

■ Emakumea edozein lan egiteko prest. 10:00etatik aurrera. 666 116 641 (Nubis Rodriguez).

» **Hezkuntza**

■ Lizentziatua, Pedagogika gaitasun agiriarekin -CAP- eskola partikularrak emateko prest. Prezio onean. Tf.: 652 551 550.

» **Beste**

■ Helduei bizikletan ibiltzen irakasteko prest nago. Doan. Informazioa: 658 758 458.

» **Salgai**

■ Hiru logelako etxebizitzaz salgai Goiko Kalean. Sartzeko moduan.

Prezioa: 210.000 euro. Tf.: 630 149 835.

■ Garaje itxia dut salgai Orioko Goiko Kalean. Tf.: 649 308 092.

■ Bugaboo Camaleon ume-kotxea eta kukoa ditut salgai. Hiru fundarekin -gorria, arrosa eta beltza- eta zaku gorriarekin. Kukoarentzako pikezko zaku zuria eta barruko funda zuria ere baditut. Dena 200 euro, xaxis gabe. Oso ondo dago. Tf.: 606 952 320.

■ Inglesina haur-kotxe urdin iluna salgai. Berria. 350 euro. Tf.: 606 952 320.

» **ITSASOA**

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
29	01:03 eta 13:23	07:04 eta 19:32	☾
30	01:52 eta 14:13	07:55 eta 20:19	☾
01	02:38 eta 14:59	08:43 eta 21:04	☾
02	03:22 eta 15:45	09:29 eta 21:49	☾
03	04:06 eta 16:30	10:14 eta 22:33	☾
04	04:51 eta 17:16	11:01 eta 23:18	☾
05	05:36 eta 18:04	11:48 eta ____	☾
06	06:24 eta 18:54	00:06 eta 12:38	☾
07	07:16 eta 19:48	00:55 eta 13:31	☾
08	08:11 eta 20:48	01:49 eta 14:28	☾
09	09:14 eta 21:56	02:48 eta 15:31	☾
10	10:24 eta 23:10	03:55 eta 16:40	☾
11	11:39 eta ____	05:07 eta 17:51	☾
12	00:21 eta 12:49	06:19 eta 18:55	☾
13	01:24 eta 13:48	07:23 eta 19:50	☾

» **ZAINZAKO BOTIKAK**» **AZAROA**

■ 29an, Lasa.
 ■ 30ean, Larrañaga.
 ABENDUA
 ■ 1ean, Larrañaga.
 ■ 2an, Gallo.
 ■ 3an, Azaldegia.
 ■ 4an, Mutiozabal.
 ■ 5ean, Iriarte.
 ■ 6an, Larrañaga.
 ■ 7an eta 8an, Zulaika.
 ■ 9an, Azaldegia.
 ■ 10ean, Larrañaga.
 ■ 11n, Mutiozabal.
 ■ 12an, Zulaika.
 Gaueko zaintza: Iriarte.

Azaldegia: Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
Etxeberria: Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
Mutiozabal: Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
Larrañaga: S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
Lasa: Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
G. Artifiano: Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
Iriarte: Zinkunegi, Pilar txo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
Zulaika: Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz

» **TREN ORDUTEGIAK**» **DONOSTIA-ZARAUTZ**

Donostia	5:47	6:17	6:47	7:17	7:47	8:17	8:47	9:17	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	6:11	6:41	7:11	7:41	8:11	8:41	9:11	10:11	11:11	12:11	12:41	13:11	13:41	14:11	14:41	15:11	15:41	16:11	16:41	17:11	17:41	18:11	18:41	19:11	19:41	20:11	21:11	22:11
Zarautz	6:19	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

» **ZARAUTZ-DONOSTIA**

Zarautz	6:08	6:38	7:08	7:38	8:08	8:38	9:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:08	19:38	20:08	21:08	22:08
Aia-Orio	6:15	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:15	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15	14:45	15:15	15:45	16:15	16:45	17:15	17:45	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	21:15	22:15
Donostia	6:39	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com. Grisez dauden orduetan trenak daude asteburuetan.

» **AUTOBUS ORDUTEGIAK**» **LANEGUNETAN**» **DONOSTIA-ZARAUTZ**

Donostia	6:55	7:40	8:10	8:40	9:10	9:40	10:40	11:40	12:10	12:40	13:10	13:40	14:10	14:40	15:10	15:40	16:40	17:40	18:10	18:40	19:10	19:40	20:15	21:00	22:15
Orio	7:25	8:15	8:45	9:15	9:45	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15	14:45	15:15	15:45	16:15	17:15	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	20:50	21:35	22:50

Zarautz	7:35	8:25	8:55	9:25	10:25	11:25	12:25	12:55	13:25	13:55	14:25	14:55	15:25	16:25	17:25	18:25	19:25	19:55	20:25	21:00	21:45	23:05
---------	------	------	------	------	-------	-------	-------	-------	-------	-------	-------	-------	-------	-------	-------	-------	-------	-------	-------	-------	-------	-------

» **ZARAUTZ-DONOSTIA**

Zarautz	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:20	9:45	10:45	11:45	12:45	13:20	13:45	14:20	14:45	15:20	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:15			
Orio	6:55	7:25	7:55	8:25	8:55	9:30	9:55	10:30	10:55	11:55	12:55	13:30	13:55	14:30	14:55	15:30	15:55	16:30	16:55	17:55	18:55	19:30	19:55	20:55	21:25

Donostia	7:30	8:00	8:30	9:00	9:30	10:10	10:30	11:10	11:30	12:30	13:30	14:10	14:30	15:10	15:30	16:10	16:30	17:10	17:30	18:30	19:30	20:15	20:30	21:30	22:00
----------	------	------	------	------	------	-------	-------	-------	-------	-------	-------	-------	-------	-------	-------	-------	-------	-------	-------	-------	-------	-------	-------	-------	-------

Lanegunetan, grisez dauden orduetako autobusak pasatzen dira Urbiletik.

» **ASTEBURUETAN**» **DONOSTIA-ZARAUTZ**

Donostia	8:00	9:00	10:00	11:00	12:00	13:00	14:00	15:00	16:00	17:00	18:00	19:00	20:00	21:00	22:00	23:00
Orio	8:35	9:35	10:35	11:35	12:35	13:35	14:35	15:35	16:35	17:35	18:35	19:35	20:35	21:35	22:35	23:05
Zarautz	8:45	8:45	9:45	10:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45	22:45	23:15

» **ZARAUTZ-DONOSTIA**

Zarautz	6:45	7:45	8:45	9:45	10:45	11:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45
Orio	6:55	7:55	8:55	9:55	10:55	11:55	12:55	13:55	14:55	15:55	16:55	17:55	18:55	19:55	20:55	21:55
Donostia	7:30	8:40	9:40	10:40	11:40	12:40	13:40	14:40	15:40	16:40	17:40	18:40	19:40	20:40	21:40	22:40



Loreto Aramendi organoan

Entzun dira Orioko San Nikolas parrokian organo berriaren lehen hotsak eta kontzertu zikloari segida emanez, gaur, ostirala, azaroaren 29an, Oscar Candendoren emanaldia izango da. Hurrengo kontzertua Loreto Aramendi organista oriotarrak -umetan Donostiara joandakoa- eskainiko du abenduaren 13an. Bi saioak 20:00etan izango dira eta sarrera doakoa bada ere, eskertuko dute irteeran borondatea ematea.

Orio

Tailerra

■ Azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean, *Mejora y descubre una nueva masculinidad* tailerra. Hizlaria: Vicente Dominguez Solera. Antolatzailea: Javier Estévez Mouteiratero -Tf.: 651 708 960-, Mandalara taldearen laguntzarekin. 140 euro. Larunbatean 10:00etatik 20:00etara -bazkaritarako atsedenarekin- eta igandean 10:00etatik 15:00etara, Mandalara taldearen lokalean -Antxiola kalea, 15-behea.

Saskibaloia

■ Azaroaren 30ean, saskibaloia partidak. Gizonezkoen bigarren maila probintziala: Autobuses Alustiza Orio-Erroibi-

de Irun, 16:00etan. Partaide-tzak junior neskek: Ursa Orio-Carnicas San Marcial, 18:00etan, Karela kiroldegian.

Futbola

■ Azaroaren 30ean, futbol partidak. Kadeteen 1. maila: Orioko F.T. - Anaitasuna C.F., 10:00etan. Afizionatuen gurengo maila: Orioko F.T. -Mondragon C.F., 16:30ean, Mendibeltz futbol zelaian.

Traste zaharrak

■ Abenduaren 4an eta 18an, traste zaharren bilketa, ohiko zabor ontzien ondoan. Atera aurretik udaletxera deitu. Tf.: 943 830 346.

Hitzaldiak

■ Abenduaren 10ean, *Umea gainean eramatearen garrantzia atxikimendurako eta kan-*

po haurdunaldia hitzaldia. Abenduaren 17an, ume eramaile tailerra. Maria Maestra Haurreskolako Guraso Elkarteak antolatuta, 17:45ean, Kultur Etxean.

Bingoa

■ Abenduaren 4an, 11n eta 18an, 16:30etik 18:30era, Jubilatuen Elkarteak antolatuta, Kultur Etxean.

Odol ateratzea

■ Abenduaren 16an, odol ateratzea, 18:30etik 20:30era bitartean, anbulatorioan.

Zinema

■ Abenduaren 19an, alardeetan emakumeen parte-hartzea aztertzen duen *Alardearen seme-alabak* dokumentala Jone Karres zuzendariak aurkeztuta, 19:00etan orduetan, Salatxo aretoan.

Aia

Silo-Bolak

■ Abenduaren 10ean, Silo-bola plastikoen bilketa. Informazioa: Urkome -943 81 65 00- edota Igor -660 049 751-.

Podologoa

■ Abenduaren 28an, podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943 131 144.

Erromeriak

■ Abenduaren 1ean, Laja eta Mikel; abenduaren 8an, Astiazaran anaiak eta Leire; eta abenduaren 15ean, Lutxurdi eta Aitziber, 18:30etik 21:30era, Andatzako Aristerrazuko plazan.

Atzeko azala: Patxi

Etxeberria bertsolari oriotarra Angel Larrañagarekin kantari 1980ko urtarillaren 6ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketan. Atzean eserita: Xabier Amuriza, Txomin Garmendia, Jose Luis Gorrotxategi, eta Manuel Sein *Xanpun*.



پهلوان